

mintza lagun

Beste herri batzuetan martxan jarri diren egitasmoez izan duten arrakastak bultzaturik eta Barakaldoko euskarak bizi duen egoeraz larriturik Sasiburu Barakaldoko Euskaldunon Elkarteak MINTZA LAGUN izeneko egitasmoa abiatzea erabaki du. Asko dira Barakaldon euskaraz jakin bai, baina hitz egiteko aukerarik ez dutenak; euskara erabili ahal izateko beraz, inguruan lagun euskaldunak edo erreferentzia bat izatea ezinbestekoa da; Sasiburuk Barakaldoko euskaldunei euskara erabiltzeko bitartekoak eman nahi dizkie.

Zertan datza:

Mintza Lagun programak lagun euskaldunak eskaizten dizkie euskaraz ikasten ari direnei, ikasi dutenei edota hitz egiteko aukera gutxi dutenei. Azken batean, euskaraz hitz egiteko interesa dutenek parte hartzeko programa da hau.

Zertarako:

Ingurune euskaldunak sortu eta daudenak



indartu eta zabaldu nahi dira. Mintza lagun egitasmoa orduan, Barakaldon euskara suspertzeko eta Barakaldoko euskaldunek euskaraz hitz egiteko aukerak izateko sortu da.

Nola:

Galdetegi bat banatuko da Euskaltegi eta Hizkuntza Eskolan zaletasun eta ordutegien berri izateko. Ondoren, zaletasunen arabera taldeak eratuko dira eta parte hartzaileek adosten duten egunean gauzatuko dira ekintzok.

Aurki jasoko duzue egitasmo honen inguruko informazio gehiago. Bitartean, ondo ibili eta euskaraz bizi!



EGIN ZAITEZ BAZKIDE



IZENA: _____ 1. ABIZENA: _____ 2. ABIZENA: _____
KALEA: _____ ATARIA: _____ PISUA: _____
HERRIA: _____ POSTA KODEA: _____ TELEFONOAK: _____
E-POSTA: _____ JAIOTEGUNA: _____

BAZKIDE MOTA

Kuota ordaindu soilik Gauza jakinetarako laguntzailea Partaide iraunkorra

URTEKO KUOTA: 15 € (Langabetua, ikaslea...) 25 € 37 €

Banku edo Aurrezki kutxa:

Kontu zenbakia (20 digitoak)

SASIBURU. Barakaldoko Euskaldunon Elkarte. Posta Kutxa 175 - 48900 Barakaldo.
E-mail: sasiburu@euskalnet.net Webgunea: www.sasiburu.net

GUNE EUSKALDUNAK SORTUZ

Barakaldo bezalako herri batean euskararen erabilera handitzeko funtsezkoa da gune euskaldunak sortzea; hau da, euskaraz bizitzea posiblea egiten duten guneak.

SASIBURUK 3 gune euskaldun eskaintzen dizu:

1



adaxkak. BARAKALDOKO
EUSKALDUNON ASTI ETA AISI TALDEA.

EUSKAL TXOKOA



Barakaldoko euskaltzale guztiontzat erreferentziala izango den egoitza fisikoa eta publikoa sortzeko plataforma osatu du SASIBURU-K

3

MINTZA LAGUN

Mintza lagun programak lagun euskaldunak eskaintzen dizkie euskaraz ikasten ari direnei, ikasi dutenei edota hitz egiteko aukera gutxi dutenei.





adaxkak. BARAKALDOKO EUSKALDUNON ASTI ETA AISI TALDEA.

2005eko urritik SASIBURUk, herriko beste euskaltzaleekin batera, abian jarri du ekimen hau, zeinak Barakaldoko ume (6-12 urte bitartean), gazte eta helduei euskaraz aritzeko eta ondo pasatzeko aukera eman nahi baitie. Hator gurekin !

"gure seme-alabek euskaraz bizi eta euskara maitatzen ikasteko"
(umeentzat)

"gazteok gara eta ondo pasa nahi dugu euskaraz, gure asti ekimenak antolatzen"
(gazteentzat)

"ez gara hain gazte, baina gure aisia beste euskaldunekin batera dastatu nahi dugu"
(helduentzat)

adaxkak
Barakaldoko Euskaldunon Asti eta Aisi Taldea. Euskararen erabilerari bultzada emateko jaio da.

Egitasmo hau gauzatzen lagundu nahi duzu?

*Umeekin begirale moduan aritzen?

*Gazteekin eta gazteentzat ekimenak antolatzen?

*Helduentzako ekimenak gauzatzen?

JARRI GUREKIN HARREMANETAN HELBIDE ELEKTRONIKO HAUETAN:

adaxkak@euskalerrria.org
sasiburu@euskalnet.net

EDO POSTA ARRUNTAZ:

ADAXKAK. Barakaldoko Euskaldunon Asti eta Aisi Taldea
Beurko Muinoa z.g. 48902-Barakaldo

SASIBURU. Barakaldoko Euskaldunon Elkarte
posta-kutxa 175. 48900-Barakaldo

SARRALDE

BARAKALDOKO

EUSKAL TXOKOA

Barakaldon euskararen balio kultural eta komunikatiboak ez du aurrera jo, hau da, ez da espazio berrietan indartu eta honi aurre egiteko duela urtebete SARRALDE sortu zen. Berez SARRALDERen helburu nagusia eta bakarra Euskaldunak bilduko gaituen Euskal txoko baten sorrera da.

Aspaldiko ideia izan da euskal txokoaren sorrerarena. Etxepare lehen eta Sasiburutik ondoren pasatu izan dira hitzok: **leku propioa behar dugu euskal kulturaren ekimen zabalak antolatzeko eta euskararen erabilerari bultzakada emateko.**

Beraz, ideia nagusi hartuta, gure herriko egoera kulturala irauliko duen txokoa sortzea izango dugu helburu nagusia. Ideia horretatik abiatuta aukerak ugariak dira. **Barakaldoko euskaltzaleok kudeatutako espazio irekia, autonomia eta herrikoa.** Herriko **elkarte guztien partehartzea** ahalbideratuko duena ahalik eta gizarteko sektore gehien biltzeko asmoz. **Astia, jaia eta kultura era natural eta giro euskaldun batean uztartu eta gozatzeko topagunea beraz.**

Gure aburuz espazio kulturalak funtzio ezberdinak bete beharko ditu bere biziraupena ziurtatzeko, betiere gure hizkuntza eta kulturaren presentzia bermatuz. Behin espazioa lortuta, berau erabiltzeko aukera ezberdinak gure lanak eta imajinazioak baino ez dizkigute mugatuko. Baina ezeren gaineratik hiru ideia azpimarratuko genituzke:

- a) Euskararen erabilera eta prestigioa indartzeko topagune fisiko eta publikoa izatea.
- b) Leku duin bat sortzea herriko eta eskualdeko sorkuntza lanak herritarrei aurkezteko, gaur egun dauden mugak gaindituz.
- c) Kultura kontsumorako izateaz gain, kultur sorkuntzarako txokoa ere izatea, herrian sortuko diren ekimen ezberdinei lehentasuna emanez.

Betiere, kultura era zabal eta dinamiko batean ulertuaz, udaletxetik sarri leporatu izan diguten euskal kulturaren "errentagarritasun eza"ri irudimenez aurre eginez.



E-MAIL

Paperezko BERRITSU honetaz gain komunikazio iraunkorra daukagu posta elektronikoa helbidea eman diguten SASIBURUren bazkideekin. Posta elektronikoa berria jarri edo aldatu baduzu guri jakinarazi !!